

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zure lagun-kuadrillarekin lotutakoak:

- ✓ **Ekarri** gelara lagun-kuadrillaren **argazki bat**: paperean, telefonoan... **Kontatu ikaskideei noiz** ateratako argazkia den, **non**, egun horretan **gertatutakoa**...
- ✓ Eginkizuna amaitu ondoren, nahi izanez gero, ahoz kontatutako pasadizoa **gutun bihurtu** ahal duzu. Demagun lagunari gutuna bidali nahi diozula eta **gutunean pasadizoa kontatu**. Gogoratu gutunean **data, agurra** eta gainerakoak ondo idazteaz. Bukatutakoan, pasatu irakasleari zuzentzeko.

Telebistako saioei lotuta:

- ✓ Ikus ezazu **eitb.eus** orrialdean **nahieran** aukera erabilita **Gu eta gutarrak** izeneko saioa. Bertan kuadrillez eta lagunez aritzen dira; izan ere, saioaren leloa **Euskal Herriko kuadrilla onenaren bila** da. **Ikusi [atal bat](#)**, eta hurrengo egunean **kontatu** ikaskideei saioaren nondik norakoak.
- ✓ Ikus ezazu **eitb.eus** orrialdean, **nahieran** aukera erabilita, **Lokaleroak** izeneko saioa. Euskal Herriko gazteen lokalak ageri dira bertan, lagun-kuadrillak... Gasteizkoak, adibidez, **[atal honetan](#)** ageri dira.

Webguneei lotuta:

- ✓ Entzun ezazu bi bertsolari hauen arteko **saioa**. Lagunen artean oso ohikoa den egoera bat aurkezten dute. Zeuri ere antzeko egoerarik gertatu al zaizu? Kontatu ikaskideei bertsoen laburpen bat eta egoeraren inguruko zure iritzia edota bizipena. Bertsoa.eus webgunean lagun eta kuadrillekin lotutako bertso saio gehiago dago, animatuko zara besteren bat entzun eta kontatzera?
- ✓ Oraingoan bertsoak eta pasadizoak lotuko ditugu. Egaña eta Peñagarikano bertsolariek txapelketa batean pasadizo bat sortu zuten, eta pasadizo horrek Negu Gorriak taldearen kanta bat inspiratu zuen. Jakin nahi nola gertatu zen? Eta zer kontatzen duten bertso horiek? Hemen dituzu esteka batzuk, horren inguruko informazioa jasotzeko. Ez ahaztu, ikusi eta hurrengo egunean ikaskideei azaldu istorio honen nondik norakoak. **[Ferminen azalpena](#)**, **[Peña/Egaña](#)** edo **[bertsoak berak](#)**.
- ✓ Ba al zenekien lagun euskaldunak egin ditzakezula? Jo ezazu **[helbide honetara](#)**, eta sortu ezazu zure euskal kuadrilla.
- ✓ Eginkizuneko zenbait ariketaren izenburuak kanta ezagun batzuenak dira (***Gure kuadrillan gure kuadrillan...***, ***Behin batean Loiolan...***) Bila itzazue Interneten, entzun, eta kantatu hurrengo egunean eskolan. Hemen duzue **[esteka bat](#)** lagungarri.